

## Udalbatza biltzeko deia

Alkatearen aginduz, Udalbatza Osoak egingo duen **ohiko** batzarrera dei egiten dizut.

Eguna: **2020ko apirilaren 27a**

Ordua: **arratsaldeko 19:30etan**

Lekua: **Covid - 19k eragindako alarma egoeran gaudela eta Toki Jardunbidearen Oinarrien 7/1985 Legearen 46.3 artikuluari jarraituz, online, "Zoom" aplikazioaren bitartez.**

### Gai-zerrenda:

1. 2020ko otsailaren 24ko eta martxoaren 4ko akten onarpena
2. Alkatearen jakinarazpenak.
3. Hainbat lanpostu baloratu eta soldata mailaren onarpena.
4. Udaleko aurrekontuaren 1. kreditu aldaketa onartuz 2020ko martxoaren 13an emandako dekretuaren berri ematea.
5. Udaleko aurrekontuaren 3. kreditu aldaketa onartuz 2020ko apirilaren 3an emandako dekretuaren berri ematea.
6. Udaleko, Mizpirualde Zaharren Egoitzako eta Udal Euskaltegiko 2019ko aurrekontuen likidazioaz onartuz emandako dekretuen berri ematea.
7. Amillaga kalean Bergarako udalaren alde 21 m<sup>2</sup>ko lurzatiaren zesia egiteko hitzarmenaren onarpena.
8. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ezarritako errekursoan (prozedura arrunta 278/2020) udala pertsonatzea.
9. Eskaera eta galderak.

Bergara, 2020ko apirilaren 23a

Idazkariak

